

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Joseba Irazoki ikusita erraza dirudi

Joseba Irazoki. Ziburuko La Factory taberna (2012ko uztailaren 8a). Sarrera doan.

ETORTZEN DA gitarra pare bat, bonboa, pedalak, txistua, platera eta nik al dakit zenbat tramankulu gehiagorekin eta berak bakar-bakarrik egiten dizu kontzertu bat, gustura joko luketena sei eta zazpi taldekide dituzten banda askok. Joseba Irazoki orkestra-gizonak saio aparta eskaini zuen uztailaren 8an Ziburuko La Factory tabernan.

Bat gehiago. Ikusia nuen bakarka akustikoan baina ez *one man band* formatu honetan. Kontzertuak bi parte izan zituela esango nuke, Bidasoatik Missisipira. Jaguarra eskuetan egin zituen hasierako kantak, *loop*ak baliatuz eta zaratatsu, esperimental. Gero hamabi sokako Eastwoodari atera zion distira eta AEBetako sustraiak geratu ziren bistan.

Folk amerikarra, bluesa, rocka eta euskal tradizioa elkar gurutzatzeko lotsarik gabe eta guztiari bere ukendua ematen, Hiru Trukuk ezagun egin zuen *Zazpi nobioren bertsio sui generis* bat egiteraino iritsi zen *–sui generis* diogu, kantaren hitzak gogoratzen ez eta ikusleek laguntzerik ez zutenez, momentuan asmatu baitzituen–; jo bitartean imintzioak eta barreak, publikoarekin konplizitatea.

Gitarrarekin ikusten duzu eta erraza dirudi, “ez saiatu horrelakorik etxean egiten” abisatu beharko luke.

Inoiz haren kontzertu batean egonak zarete? Nik ez dut horrelako gauza askorik ikusi inguru hauetan, harrিতa nago nola, zergatik, zeren kausaz, zer dela eta ez diogun eskaintzen beste batzuek



Irazokik kontzertura hurbildu zirenak harritu zituen “persona bakarrek banda” bihurtuta.

merezimendu gutxiagorekin jasotzen duten arreta.

Agian musika egiten gozatzen duen tipo bat delako eta ez hainbeste “musikariarena” egiten?



ZIO

ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure
artean
euskaraz

Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

BFA
DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Deputación Foral de Bizkaia

BIZKAIA
BIZIA